

## 34/2007 DEKRETUAREN INGURUKO AURREKONTU ZEHAZTAPENAK

### GARPENERAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK (III. KAPITULUA)

#### ZEHAZTAPEN OROKORRAK

##### **Kostu zuzenak eta zeharkako kostuak (7.2 art.)**

Kostu zuzena: Proiektua martxan jartzeko eta egikaritzeko beharrezkoak diren kostuak.

Zeharkako kostua: Proiektuari zuzenean lotutako administrazio-gastuak dira, bai proiektuaren identifikaziorako, formulaziorako, eta jarraipenerako, bai jardunaren hedapenerako eta gizarte-sentsibilizaziorako.

##### **Kanbio-tasa (18.3 art.)**

Gasturen bat eurogunetik kanpo egitea ezinbestekoa den kasuan, deialdiaren Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den eguneko kanbio-tasarekin formulatuko dira. Proiektuak deialdiaren Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den eguneko kanbio-tasarekin formulatuko dira. EBZ-ak argitaratutako kanbio-tasa erabiliko da; gastua gauzatuko den herrialdeko kanbio-tasa EBZak ez balu argitaratuko [www.oanda.com](http://www.oanda.com) web gunekoa erabiltzea posible litzateke.

Finantza-jarraipeneko txostenak egiteko orduan, eurogunetik kanpo gasturen bat egin behar izan balitz, gastu hori eurotan sartuko litzateke tokiko monetaren bihurketa egin ondoren (ez da sartuko tokiko monetaren zutabea).

##### **Kostu egokiak (18.7 art.)**

Kostuak, prezioari eta kalitateari dagokienez, ahalik eta egokienak izateko baliabideak jarriko dira.

#### PROFORMAKO FAKTURAK, AURREKONTUAK ETA KANPO BALORAZIOAK

Kontzeptu baten kostu unitarioak 2.500 €-ko muga gainditzen badu edo haren guztizko balioak 6.000 €-ko muga gainditzen badu, indarrean dauden proformako fakturak aurkeztea beharrezkoa izango da.

Balorizazioen kasuan, zenbatekoa edozein izanik ere, egiaztagiriak aurkeztu behar dira.

##### **Ohiko akatsak:**

- Proformako fakturarik ez entregatzea, nahiz eta gastuek aipatutako zenbatekoak gainditu.
- Proformako fakturek data izan behar dute eta, edonola ere, ez dira baliozkoak izango deialdiaren bi urte baino lehenagokoak badira.
- Partida berean proformako faktura eskatzen ez duen unitateko kostua (2.500 eurotik beherakoa) duten kontzeptuak errepikatzen direnean, proformako fakturarik ez aurkeztea. Baina kontzeptuak partidan duen guztizko balioak (6.000 eurotik gorakoa) aipatutako zenbatekoak gainditzen ditu, beraz, proformako faktura aurkeztu behar da.
- Langileen kostuak ez egiaztatzea (nomina bidez).

## **ERAKUNDE ESKATZAILEAREN GASTU EGOZGARRIAK ETA BALORIZAZIOAK**

### **A.I partida: Materialak**

Partida honetan jarduerak egikaritzeko behar diren materialei dagozkien gastuak biltzen dira (proiektuari zuzenean atxikitakoak), ondoren xehatzen diren zehaztapenekin.

#### GASTU EGOZGARRIAK

- Proiektuan aurreikusitako jarduerak egiteko behar diren hainbat euskarritako materialen (bibliografikoa, ikus-entzunezkoa, magnetikoa) eta material suntsigarriaren erosketak.

EZ DIRA EGOZGARRIAK erakundearen funtzionamendu orokorrerako behar diren materialak (adibidez, ekimenaren jarraipen orokorra egiteko ordenagailuak).

#### BALORIZAZIOAK

Kontzeptua	Egiaztapena
Euskarri desberdinetako materialak eta material suntsigarria	<p>Fakturak edo erosketak frogagiriak (proiektua hasi aurrekoak izan daitezke)/Erakunde eskatzaileaz kanpoko balioespena.</p> <p>Hala badagokio, balio-galtzearen ziurtagiria: egungo kostua egiaztatzen duen agiria erosketak-prezioaren eta igarotako denboraren arabera.</p> <p>Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria.</p>

### **A.II partida: Langilea gastuak**

Partida honetan euskal erakunde eskatzailearen edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko ordezkariaren langileen kontratazio gastuak biltzen dira, proiektua garatzeko, eta ondoren xehatzen diren zehaztapenekin. Formulario-teknikoaren 11.1. Bediregarritasuna giza baliabideak atala bete behar da.

#### GASTU EGOZGARRIAK (Partidako gehienez: guztizko aurrekontuaren % 85)

- Proiektuan lanean diharduten euskal erakunde eskatzailearen edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko ordezkariaren langileen ordainsariak eta gizarte-gastuak. Langile horiek erakunde horien nominan daude Euskal Autonomia Erkidegoan, lanaldi oso zehin partzalean proiektuaren jarduerak zehatzak inplementatzeko, ez garapen orokorrerako. EZ DIRA EGOZGARRIAK jarraipen orokorra egitea xede duten administrazio-langileen gastuak (adibidez, finantza-txostenak egitea...).
- 12, 14 edo 15 paga eta kitapena (dagokion pertsona proiektuaren esparruan kontratatzeari dagokion ehunekoan).
- Diru-laguntzari egotzitako gehienezko ordainsaria: 3.000 €. 3.000€ hileko guztizkoa (soldata + gizarte segurantzak pertsonako) + %32/33 enpresaren kostua.

EZ DIRA EGOZGARRIAK erakundeko langileen joan-etorrien, elikaduraren eta ostatuaren gastuak proiektuko jardura orokorretarako badira. "Zeharkako kostuetan" sartu behar dira.

### BALORIZAZIOAK

Kontzeptua	Egiaztapena
Erakundeari lotutako pertsonen lan boluntarioa.	<p>Formulario-teknikoaren 11.1. Bediregarritasuna giza baliabideak atala zuzen bete behar da.</p> <p>Orduko egindako lan boluntarioaren balorizazioaren ziurtagiria.</p>

### **A.III partida: Bidaiak eta egonaldiak**

Partida honetan proiektuaren berezko jardueren esparruan bidaiak, ostatuak eta mantenuak eragindako gastuak biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztasunekin.

### GASTU EGOZGARRIAK

- EAEko pertsonen (nominan edo puntualki kontratatuak) bidai, ostatu eta mantenu gastuak. Era berean, proiektuaren EAEko jardueraren batean EAera gonbidatu beharreko pertsonen bidaia, ostatu eta mantenu gastuak (beti ere jardueraren garapenean izaera protagonista badute). Bidaien arrazoiak justifikatu behar dira.
- EAEtik kanpo gizarte eraldaketarako hezkuntzako esperientziak trukatzeko bidaiak egin behar dituzten EAEko pertsonen (nominan edo puntualki kontratatuak) bidaia, ostatu eta mantenu gastuak. Bidaien arrazoiak justifikatu behar dira.

- Gastu horiek faktura/ticket bidez justifikatuko dira. Ez dira onartuko dietak edo erakunde eskatzaileen barne-erregulazioko taulak.

- Joan-etorria norberaren ibilgailuan egitea beharrezkoa denean, km bakoitzeko 0,35 € ordainduko dira. Bidaia norberaren ibilgailuan egiteko arrazoiak justifikatu behar dira.

### BALORIZAZIOAK

Kontzeptua	Egiaztapena
Bidaia, ostatu eta mantenu gastuak.	<p>Fakturak edo erosketa-frogagiriak (proiektua hasi aurrekoak izan daitezke)/Erakunde eskatzaileaz kanpoko balioespena.</p> <p>Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria.</p>

EGOZGARRIAK DIRA ostatu- eta mantenu-gastuak balorizatzea baldin eta badago tarifa/prezio ofiziala (esate baterako, aterpetxearekin akordio batera iritsi gara, jardunaldi batzuetan bi egunez parte hartuko duen hizlari bati ostatua doan emateko. Kasu horretan, aterpetxearen tarifak aurkeztu beharko lirateke, baita proiektuan sartzen ari zen egonaldiko bi gau horientatik aterpetxea emateko konpromisoaren ziurtagiria ere.

EZ DIRA EGOZGARRIAK etxe partikularretan ostatu- eta mantenu-gastuak balorizatzea.

#### A.IV partida: Kontratazioak

Partida honetan biltzen dira zerbitzuen edo langileen kontratazioarekin erlazioatutako gastuak, beti ere proiektuaren berezko jardueren esparruan lan zehatzak egiteko.

Merkataritzako kontratu horiek indarreko araudiarekin bat etorri behar dute, betiere langileek eskaintzen dituzten lanbide-zerbitzuak noizbehinkako jarduna edo ohiko jarduna diren kontuan hartuta (PFEZ/BEZ, kasuan kasu) eta langileak EAEn bizi diren ala ez kontuan hartuta.

#### GASTU EGOZGARRIAK

- Lan bereziak egiteko zerbitzuak eta langileak: diseinua, produkzioa, inprimaketa, banaketa (baita EAetik kanpora ere), hizlarietzako ordainketak, itzulpenak eta abar.
- Kontratuaren baldintzetan biltzen diren bidaiak eta mantenua. Kontratuak ez baditu biltzen, Bidaien eta Egonaldien partidan egotziko dira.
- Webguneak: Diseinu eta mantentze teknikoko gastuak. Erakunde Eskatzaileetako pertsonak webguneak mantentzeko izandako prestakuntza-gastuak.

EZ DIRA EGOZGARRIAK erakundeen irudi korporatiboak (webguneak, materialen produkzioa, inprimaketa edo banaketa). Zeharkako kostuekin finantzatzen dira.

- Argitaratutako materialak produktuaren kostu-prezioan jarri ahal izango dira salgai (aurrekontuan jasotzen ez bada ere, beharrezkoa da formularioan adieraztea). Gainera, proiektuaren esparruan eskaintzen diren ikastaroek kostu bat izan badute, kostu hori formularioan jaso behar da. Nolanahi ere, materialen salmentagatik edo emandako ikastaroengatik sor daitezkeen diru-sarrera guztiak proiektuko jardueren esparruan inbertitu beharko dira.

#### BALORIZAZIOAK

Kontzeptua	Egiaztapena
Lan bereziak egiteko zerbitzuak eta langileak.	Ondasunen edo zerbitzuen fakturak / egiaztagiria Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria
Webguneak.	Ondasunen edo zerbitzuen fakturak / egiaztagiria Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria
Proiektuko jardueri atxikitako aretoak (aretoak alokatzeko kontratazioa).	Alokairu-zerbitzuen kostuaren kanpoko tarifa. Aretoen titularraren lagapen-ziurtagiria. Ekarpenari buruzko konpromisoaren ziurtagiria.

Orokorrean BEHARREZKOA DA alokairu-zerbitzuen kostuaren kanpo-tarifa aurkeztea, baina aretoaren titulartasuna erakunde batena bada (udalak, unibertsitateak) ez da beharrezkoa izango kanpokoa aurkeztea. Erakundearenak aurkeztearekin nahikoa izango dugu.

#### **A.V partida: Funtzionamendua**

Partida honetan proiektuaren garapen zuzenerako beharrezkoak diren funtzionamendugastuak biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztapenekin.

##### GASTU EGOZGARRIAK

- Proiektuaren inplementazio zuzenerako, hots, proiektuaren jarduera zehaztetzarako eta ez garapen orokorrerako, beharrezkoak diren ondasun higigarri edo higiezinen alokairua.

EZ DIRA EGOZGARRIAK proiektuaren garapen orokorrerako diren ondasun higigarri edo higiezinen alokairu-gastuak. Zeharkako kostuekin finantzatzen dira.

EZ DIRA EGOZGARRIAK erakunde eskatzailearen funtzionamendugastuak: argia, ura, Internet, telefonoa... Zeharkako kostuekin finantzatzen dira.

##### EZIN DA BALORIZAZIORIK EGOTZI

#### **A VI. partida: Ebaluazioa**

Partida honetan ebaluazioko/sistematizazioko gastuak biltzen dira, ondoren xehatzen diren zehaztapenekin.

##### GASTU EGOZGARRIAK (Gehienez: guztizko kostu zuzenen % 5)

- Kanpo-kontratazio batek eragindako gastuak (bidaiak eta mantenua barne), kanpo-ebaluazioaren nahiz ebaluazio mistoaren kasuan.

EZ DIRA EGOZGARRIAK ebaluazioan parte hartzen duen erakunde eskatzailearen soldata-, bidai- edo mantenu-gastuak.

EZ DIRA EGOZGARRIAK auditoretza-gastuak.

##### EZIN DA BALORIZAZIORIK EGOTZI

#### **Ohikoak diren beste akats batzuk**

- Soldatetan eta partidetan onartutako kopuru eta ehunekoak gainditzea.
- Dietak ere barne hartzea.
- Ordainagiriaren erabileraren memoriarik ez aurkeztea edo ofiziala ez den formatuan aurkeztea. Gastuak faktura bidez ezin direnean justifikatu, formulazioarekin batera ordainagiriaren erabileraren memoria bat aurkeztu behar da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren formatuan. Ordainagiriak zerbitzuak ematen dituzten pertsonak sinatu behar dituzte. Pertsona horien sinadura lortzea ezinezkoa bada, memorian zehaztu beharko da zein kasuetan gertatzen den, eta justifikatu.
- Ez da behar bezala betetzen edo ez da betetzen formulario-teknikoaren 11.1 atala. Giza baliabideei lotutako bideragarritasuna.